

EUSKAL IKASKINTZA ELKARTEA

Orduan gazteak gñanak, gaur zaartu gera, baiña oraindik oso gogoan degu «Sociedad de Estudios Vascos» Elkarte. Milla bederatzireun da emezortzigarren urtea zan eta Oñaitiñ biltzen zan denengo EUSKAL IKASALDIEN BATZARRA. Julian Eloriza zana lendakari aukuatu zuten eta jaio zan Euskal Ikaskintza Elkarte gazte ta indartsu, gure erriko jakintza indartzeko asmotan.

Zortzi egun bete-beteak eskeñi zizkieten gure jakintza, oitua, jolas ta beste erakusgarri. Elkarte arek bere gain artzen uran arrazkero «Revista Internacional de Estudios Vascos» aldizkaria. Ordurarte, Julio Urkio jaunaren gidaritzapean eramana zan aldizkari ura. Urkio-ko borondate osoa, jaio berri zan Euskal Ikaskintza Elkartearen eskuetan utzi zuan aldizkari jatorria.

Oiek dira orduko oroitzak. Gerora, Elkarte arek urte batzuetan bizi ta yayo lan egin zuan gure jakintzaren alde. Etorri zan gure arteko gerratea ta beste gauza asko bezela, burruka aren aietan aztua gelditu zan gure Elkarte.

Eitzañ ala ere, ñenen oroitza galdu ta urte auetan, or-emen ba-ziran gure artean Elkarte ura piztu nai zutenak. Igaro diran urteak, asko erakutsi digute euskaldunoi, eta gure arteko jakintza maila ere, goraka dijoa, Jainkoa lagun.

Ikastetxeak ugaltzen iri zaizkigu Euskalerrri osoan. Ta ez lenengo maila-ko ikastolak bakarrik; goikoak ere tarteka sortzen iri dira lau Euskalerrrietan. Naparrua'k ba-ñu bere Unibersidadea, Bizkaia'k Deusto'koa or dauka agiri. Ortik gora, Erdi Irakaskintza ere gure errietan ikastetxe berriz sendotua ikusten degu.

Jakintza giroa ta ikasle taldeak, beraz, egun-egñean iri dira gure lurrean giro berrira esnatzen. Len Euskalerririk kanpora atera bearean ziran ikasle askok, orain Euskalerriri barruan arkitu dute beren Ikasaldiak burutzeko toki.

Giro ta aide onek bere eskutik dakar gure Jakintza Elkarteak pozteko ta indartzeko bear degun sasioa. Ordu egokia degu lengo Elkarte loturak esnatu ta berritri lanean aste. Noiz obeto Euskal Ikaskintza Elkarte eskatzeko?

Lenbizi, joandako urte aietan egin zan lana bildu ta zuzendu egin bearko da, asiera on bat emateko esnaera oni. Gero, egindakoaren gainean jaso bedi geroko lanaren bidea. Gauza on asko ditugu lengo lan artatik jaso ditzakegunak. Gaurko gazteak, gure aurretikoen aletgiñak eta azterretak ezagutu bear dituzte, beren lana lengoen lanetik etenda etorri ez dedin. Ez gaitzen berriz asi egiña dagona ezagutzeko, berriro lan berea egiten.

Urteak, Euskalerrietarako arropastaka dijoaz, jakintza berriak, gurea arriksuan jartzen digute. Epelekerria lo artzen ba-degu, besteak aurrea artuko digute, ta gure erria atzeratuagoa geldituko da lenegaz. Artu dezagun, ba, gure jakintzaren lema ta jo dezagun zuten, EKIN ETA YARRAI, gure ikas-gosea bere bidez eramanez, gure erria jakitez asetzen degula.

Euskalerriri zaarrak gaitaldi berri bat eskatzen digu. Gizaldi berriak guri zaarren etela sendotu bear dute. Gauden lengoekin, baiña goazen aurrera bidean!

Gaurko solairuetarako jantzia.

Gipuzkoako zabaltzailleak:

ARISTEGI ANSIAK

Almazena: Moraza, 4 — DONOSTIA — Tel. 19.446

sinlasol

TXISTULARI ETA «FLAVIOLAIRE»

JUAN SAN MARTIN

Norbaitek esan du asteroko onek dakarren GAZTE NAIZ orrialdeak ez duela balorik eta bere ordue deporte gaia obo litzakeala. Olakorik ez, areñi Ori izango litzake etorkizunaren bidea auste.

Gazteak libre jokatu bear du. Bere erara, nari. Adin bakoitzaren joerak bere ezkutzak ditu. Beste adin batekoak (batez ere nagusiagoak) ongi ulertu ezinzeko mundu motan bizi da adin bakoitza, belsunik-belun, garai bakoitzean aldakor. Gazte bere ere ta konzeptuetan libre ez uztea, landare bati eguzkia ukatzea bezelakoa da. Gazteari erakustea ongi dago, baiña beartzea ez. Eta, bere jokaraz auste, ukatzea bezela da. Beraz, areñi ez dedilla galdu, orri ori, astekari onetarik.

GAZTE NAIZ orri onetan kezka ebririk nabari dira. Ezin ditzake ukatu. Eta gazte kezkatuegandik bikarrik arkitu genezake gure erriaren etorkizuna. Ez foball-zale burrukatuegandik. Oiegandik, ezi foball-zaleuegandik, genirik ere, beste ogetiak uretako logalea. Eze-rrera bera baiño txarrago den pakeak ez dakar gizonuegandiko frutirik.

Guk bideak libre utzita ere, gaurko gazteak naikoa oztopo du mundu onetan. Orreagatik, gurgandik ez dedilla izan inoizako garoepenik beren gogoko orriso onek.

Aurteniko lan batean azaldu nuan bezela, nik beintzat atsegiñez irakurtzen dut orri ori. Ez euskerak gerorako ortik izan ditzakean probetxua gaitik. Probetxu ori jasotzen iri da. Azken zenbaki auetan ere beste idazle berri bati jo diet begia. Berria ote? Goihenetxo dalakoa, berria edo zarra, ez da edozein. Orriela idazten duena ezin daiteke izan norain. Euskera jator menderatzen du; idazkera bizi du; ta gaitik ere, geleenan, idaztancerari dagozkiekan. Bere lan batek irazartu nau Txistulari eta «flaviolaire» artikulu au idaztera. Bere Hau-zo-lan eta «Ailla», irakurtzek.

Gauzak seriotasunez astinduko baganduzke; kontraturako giñakez gure Euskalerririk duen balio autokronorik berrietana, beste gauza giñak alkartuta añañ balio duena, euskera dala. Goihenetxo, hauzo-lanaren kideko arkitzen du Peru eta Bolbio'ko errietan egiten dan «Ailla» era orretan. Ta, nik, gaurko, adibidez txistulari eta «flaviolaire»-k duen alkerreko senidetasuna aztertuko det.

Izan ere, toki guzietan indabarrak egosten dituzte. Ni ez nioja Goihenetxo bezin urruti txistuaren kideko arkitzeko. Ba dakit, Yon Onaitibia adiskideak esan zidanen, Ingleterra aldean badala txistuaren antzerako bat, doñu berdiña lotzen ez badu ere. Denok dakigu Xiberoko txirula dala txistuaren ainal rikia. Baiña, gutxiak, oso gutxiak jakinago dute Huesca-n badala, trun-tuna bezelakoa «chicotèn» deitzen diotena, ta Xiberon txistulari lagun-tzen dien trun-tuna bezela lagun-tzen die Huesca-n «chicotèn» orrekin (trun-tuna-ren berdiña) «flauta» deitzen dien txistuari.

«Flauta» ori gure txistua bezelakoa da. Diferentzia bakarra, subearen azalez estalia egotea, asi goitiki eta bera. «Flauta ori, dudarik gabe, txirula baiño urbillago dago txistuagandik. Jaka inguruetan asko ikusten da.

Txistua, jatorriz, artzai instrumento denez, ez da gaitza kidekoak arkitzen Pirineoan zear. Gerona-n, bestaldeko muturrean, oso ezaguna da «flaviolaire», txistua bezelakoa «caramillo» izeneko bat gure txistularien erara tanbolituez lagundurik josten dutena. Ikusi ezkerre ezin uka txistuaren senidea dana.

Baiña, arrigarriago oraindik (arrigarria, mundu guzian txistuaren antzerakorik ez dagoala uste dutenentzat), Mallorca-n bada «flaviolaire» bezelakoa, oraindik txistuaren alde geiago duena ta besotik —emengo erara— zintzilirik duen danbolin otsarekin lagundurik

joten duena. Ta, arrigarriago, konparasa egiteko bi flautero oietako eta iri gaitero alkarturik josten dira, bertako artzaien erara jantzia, erriko jaietan eleizan egiten dan dantzari laguntzera.

Gai au astintzen jarraitzera ez litzake oso gaitza beste alderdi batzuetan ere arkitzea.

Izan ere, isurimutu oiek jatorri zaarrak dituzte ta mendeetan aldatuak dira eraz eta tokiz. Orreagatik, txistuak izango ditu bere doai bereziak, baiña ez uste dan beste.

Gascue-ri edo uste det irakurri niola, erromatarrik euskal txistuari *tibia vasca* edo zerbait orrelako deitzen ziela. Erromatarrentzako, *tibia*, erederazko «flauta» zan. Baiña nor daki aiek aipatzen zuten *tibia* oraingo bezelako txistua zanik? *Tibia*, sanko zurria ere berdin zan. Ezurrezkoa da txistua, ezurrezkoa Huesca-ko «flauta», eta baita Gerona-ko «caramillo» ere ezurrezkoa da.

Orain bost urte, Barandiaran-ek arkitu zuan Arzetako arpean (Fotua-Bizkaia) orkatz adar bat bi zuloekin. Txistua ote? Balitz ere ez du oraingoaren antzik. Baiña bai, ba du aidea, Isuritz-en arkituak. Laburdiko arpe onetan billatua egaztu izateko egiña da ta iru zulo diru. Passemard-en iritzi Aurhizienze garaiakoa da. Orrela baltiz, Altxerri (Aya) arpeko irudiak baiño askoz ere zarragoa da. Baiña ori ere arji dago oraingo txistua bezelakoa ez dala. Izatekoan ere, txistua, txirula, flauta, caramillo, t.a., guzien gurasoa.

Goihenetxo ez dago hauzo-lanaren kontra ni ere ez txistuaren. Kontraturan gerana da, folkloreaki gora dijoala izkuntza bere dijoanen. Goihenetxo-ekin diot: «Zerk ezagutaritzen du gure herria? Zein gauzak osatzen ditu gure herri-nortasuna? Ziplo botako gñeukan erantzuna, oso ezaguna da: hizkuntza».

EGUNETIK EGUNERA

CARLOS SANTAMARIA

AZAROA'K 19.—NEURRI BAKAR BAT

Amaita gora-bera ondoan erlijio-libertadea onetsi berri du Butzar Nugusiak. Oruñarte teologo geienak bi egokera berezkatu oi zituen. Lenengo erri katolikakoa, alegia, erderaz «tesis» deritzatona. Bigarrena, berriz, osterontzeko erri-takoa, hipotesis izena duena. Ori dala-ta Elizak bi pibu ta bi neurri ditula esan oi zuten askok. Adibidez, España-n protestanteei ukatzen zitzatona, Eliza berak eskatzen zuen katolikoenentzat beste errian. «Juego doble» egiten zuela esaten zuten asko aiek. Dotriña berriak kritika oiei arpegi ematen die. Konzilioak orain agintzen duna au da: Estadnak, batere ezberdintasunik gabe urtar guziet «inmundadea» ezagutu bear diu, erlijio-saltea, gizon bakoitzak bere sinismenari jarraitu ahal dakion, naiz ta sinismen au egiazko fedea ez izan ere, estaduaren aurrez gizona libre izan bear da. (Jaingoikoaren aurrean ez, jakina). Beraz, erurrerantzia ez dira bi egipide izango, orainarte bezela, ez baiño jokera bakar bat. Ontz, gizonak, gizona dan aldetik, egiazko eskubideak ditu, mundu ontako ahaldu guzian aurrez. Oraingo garaiak, Elizak, katolikoan eskubideak ez ezik, baita ere gizon guzien eskubideak zaindu nai ditu. Tesis-hipotesis teoria ez dirauan autik geiago. Bereak egiten du Etorkizunean bi pibu ta bi neurri ez, baiñik, joku-garbi bakar batez baliatuko dira katolikok. «fioc erat in votis».

AZAROA'K, 22.—ELS NOUS MOSSENS

Buritik burura katalandun izkuntza dotoreaz idatzitako «Criterion» aldizkariak, «El nous mossens», au da, «Apatz berriak», beritazan liburuari gogor ekien dio, bere azkeneko lumeroan. Michel de Saint Pierre liburutzaz mintzatu ez det nai, onen «azpi-jana» iguingarri amarr iruditzen bait-zait. Ez-buru-oz-oneko estabaidetan sartu ere atsegiñen ez zait. Bañan zenbaki aipatuan Josep Píol jaunak «Campana anti-conciliar» izeneko, artikulu garrantzidun bat, argitaratzen du. Konzilioa galarazteko oraingo azpi-joko zikiña salatzen danean argi ta garbi, Ikaraturik gelditzen zera, fededun andienak diralakoan borondate geiztu au ikustean, Ivañarte, esker aldetik edo «gaitoen», aldetik etortzen omen ziran hai

retiak. Gaurko egunean, ordez, «Papa baño pispitogok» ugari dira kristauetan. Askok Elizaren berritzea begi onez ikusten ez dute. Nik uste nuen sinis-gabekeria zala Federeantzako arriksu rik andiena. Orain ikusten dedanez ori baño sinis-geitegekoria arriksu aundiago izan ditake gaurko gora-bera etan. Ori da, neretzako, «Les nouveaux prêtres» liburaren eta literatura guzi orren ikasgi nagusia.

AZAROA'K, 25.—OLERKARI BATEN NEGARRA

Aspalditxoan astekari ontan bertan, «gaste dan» I. Lete idozleak argitaratuko idazkia arretarik handienaz irakurri det, baina bi edo iri al-diz herriakurri ere egin det. Artikulu horrek oso garrantzi handia dauka nere ustez. Amazuz-pi urteko ametza ta berotasuna galdua, atzenko oportunitadecaron aurrean zaudela diozu. Aurre-rantziañ, munduko ilumpeen zear ibili bearko zerala. Bai orixe, zuzena zera-ta gizona izatea zera gauza ikaragarria dan berri jakiten asi zera orain. Ulertzen ditut. Ni ere gaztearoen amaita tristura izaten nituen; orain, berriz, zaharra izaten asi natzela, geienetan alai egoten naiz, barnetik gutxienez. Zure oraingo gaitotasuna urteak bakarrik sendatitako dute. Bañan, ez izan presarik, gazotasun berori sendatzeko. Gasteñe ilun-tasuna, talant ta iaioa izan oi da, baita oso estimagarria ere. Nolanai ere, utzi nazazu kontseju batzuek ematen. zaharrok kontsejuak ematea opti-ziorik nagusienu degu-ta. Tristura, ta mundo ontako gauza guzien antzera, mi motakoa izan oi da. Tristura samiria ez da lagun onik izaten gizonarentzat. Egia esateko, zure gaurko goibela-suna, egokia, gozoa, samurra, irudi zait. Eta oler-tiduna, asko. Gazte argiak, zu bezelako jatorrizko poetak diranak batez ere, triste amarr izan bear dira «arraisaldea gau biurten dan orduan» (Bizi bera govo-goxo arratsa biuritzen zaigu gizon guzietan ere bai). Ala ere, ez utzi mugarik gabeko tristura biotzera sartu. Besteetere bai abapzi urte ez ezik, baita berrogei ta amar urte joan zaigu ere. Bañan tristura txarrari, tristura madarikatuari, beti atzeral esaten diogu. Ez zaiten orain gaste-zaharra, gerokoan zahar-gaztea izan zaiten-zen!

OSBORNE
Y Cia., S. A.

Coñac Veterano Coñac Magno



Coñac zarrak eta onak

Papeles Pintados y Pinturas, S. L.

Etsekoandre: Zure etxeaz pintatzea ala enpapelatzea erabaki baño leu, atoz guregana. Eskerrak emango ditziguzue.

Iparragirre, 8-beana
Urrut. 19605 - 21075

DONOSTIA

Etseko-andre: Iraun arazi zure arropel onoko jaboi onetan:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'zestu ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilili beti. Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezue erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra. Etseko-andrearentzat nerkamerik egokienu,

JABON LAGARTO!